

Eibarko Udaleko kirol-instalazioen erabilera arautzen duen ordenantza

Eibar Kirolak (aurrerantzean EK) Eibarko Udaleko Kirol Unitatea da, eta haren helburu nagusia da eibartar guztien artean bizi-estilo aktiboak eta osasungarriak sustatzea.

Araudi honen xedea da Eibarko Udaleko kirol-instalazioen erabilera eta antolatzen diren jardueren erregimena arautzea. Instalazio eta jarduera horietara edozeinek izango du sarbidea, baldin eta araudi hau kontuan hartuta erabiltzen baditu, eta, hala badagokio, tasak edo prezio publikoak aurretik ordaintzen baditu. Halaber, instalazioen erabilera- eta disziplina-erregimena arautzea ere badu helburu.

Eibarko Udalak instalazioak gobernatzeko eta administratzeko ahalmena du, baita horiek erabiltzeko mugak programatzeko, ikuskatzeko eta kudeatzeko ere. Era berean, eskubidea du beharrezkoak diren xedapen edo ebazpenak emateko araudi hau argitu, aldatu edo garatze aldera. Araudi hau herritarren eskura egongo da, araudi espezifikoekin batera (ordutegiak, tasak, etab.).

Kirol-instalazioetan eskaintzen diren instalazio eta zerbitzuen erabilerari aplikatu beharreko tasa eta/edo prezio publikoak udalak ezarriko ditu, tasa eta prezio publikoei buruzko Ordenantza Fiskalaren bidez.

EKren eskumenekoak dira jarraian aipatzen diren kirol-instalazioak:

- Ipurua kiroldegia.
- Unbe kirolgunea.
- Orbea kiroldegia
- Astelena frontoia.

Hala ere, Araudi hau aurrerantzean Kirol Unitatearen eskumenaren barruan txertatzen diren kirol-instalazioetan ere aplikatuko da.

Horrek guztiak justifikatzen du araua bat etortzea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129.1 artikuluan aurreikusitako erregulazio onaren printzipioekin. Artikulu horren arabera, administrazio publikoek honako printzipio hauek izan behar dituzte beren jardunaren ardatz: beharrezkoa, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

1.1 ERABILTZAILE MOTAK

Halakotzat hartzen dira Udaleko kirol-instalazioak erabiltzen dituzten pertsonak edo jarduera fisiko edo kirol-jardueraren batean parte hartzen dutenak.

ERABILTZAILEAK: Hiru eratakoak dira:

- I. Kirol-instalazioetarako abonua duten pertsonak.
- II. Jardueretan edo ikastaroetan izena emanda daudenak.
- III. Instalazioak erabiltzen edo alokatzen dituztenak, edo noizbehinkako jarduerak

egiten dituztenak, dagozkion tasak edo prezio publikoa ordainduta.

Laguntzera eta ikustera doazen pertsonak erabiltzaile pasibotzat hartuko dira. Arau hauek erabiltzaile horiei aplikatuko zaizkie, instalazioan dauden bitartean eduki dezaketen erantzukizuna kontuan hartuta.

KOLEKTIBOAK. Hala deitzen zaie kirol-jarduerak egiteko kirol-instalazioak modu kolektiboan erabiltzen dituzten erabiltzaile guztiei. Kolektiboen artean hauek nabarmentzen dira:

- I. Herriko kirol-klub eta -elkartek.
- II. Gurasoen elkarteek sortutako herriko eskoletako kirol-taldeak.
- III. Ikastetxeak.
- IV. Erakunde publikoak.
- V. Irabazi asmorik gabeko elkarte publikoak edo pribatuak.
- VI. Enpresak.

1.2 ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Kirol-instalazioak erabiltzeari dagokionez, erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte:

1. EKri buruzko askotariko informazioa jasotzea (instalazioak, ordutegiak, prezioak, jarduerak, etab.).
2. EK-ko langileen aldetik arreta eta tratu egokia jasotzea. Norbaitek erreklamaziorik edo iradokizunik egin nahi badu, edozein unetan izango du eskubidea instalazioetako zerbitzuetako arduradunen edo hango edozein langileren identifikazioa eskatzeko.
3. Alokaturako edo erreserbatutako kirol-instalazioak edo aukeratutako jarduerak erabiltzea erreserbatutako ordutegi eta denbora-tarteetan, betiere ez badira hori egitea eragozten duten programaturako ekintzak egiten ari, ez badira EK-k baimendutako kirol-ekitaldiak egiten ari edo ez badago klima-gorabeherarik edo konpondu ezinako matxurarik; nolahi ere, EK-K erreserbak edo jarduerak bertan behera utz ditzake interes orokorreko arrazoiengatik.
4. Aukeratutako jarduera egitea, betiere izena emandako pertsona kopuruak aurrez jarritako gutxienekoa gainditzen badu.
5. Erabiltzaileekin zerikusik ez duten arrazoiengatik ordutegi gorabeherarik egonez gero, haien ordua luzatu dezakete, hartuta ez badago, edo, libre egonez gero, beste instalazio batera aldatu.
6. Abonatuek eta erabiltzaileek kontratatutako zerbitzuagatik ordaindutakoa itzultzea eska dezakete, gorabeherarik egonez gero edo zerbitzua bertan behera uzten bada. Ez da dirurik bueltatuko klima-gorabeherengatik edo zerbitzua etetea ezinbestekoa den kasuetan.
7. Igerilekuetako uraren kalitate-neurketen emaitzak ezagutzea.

8. Instalazioak erreserbatzea, batik bat, bitarteko hauek erabiliz: Internet, Eibar Kirolak APPa edo Ipurua, Orbea eta Unbeko kiroldegietako atezaintza.
9. Datu pertsonalen konfidentzialtasuna bermatua izatea, indarrean dagoen legeriari jarraituz.

Instalazioen erabiltzaile guztiek betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Instalazioak eta zerbitzuak erabiltzeko Araudi honetan ezarritakoari eta hura garatzen duten xedapenei jarraitzea (instalazio bakoitzaren araudi espezifikoak, etab.) eta baita EK-ko langileek emandako jarraibideei ere.
2. Gainerako erabiltzaileak, publikoak eta instalazioko langileak errespetuz tratatzea, eta azken horien lana erraztea.
3. Instalazioak eta elementu materialak egoki erabiltzea, behar bezala jokatzuz eta garbi eta egoera onean mantentzen lagunduz.
4. Izen-abizenekin identifikatzea, EK-ko langileek hala eskatzen dutenean, Kirolgunean sartzeko txartela erabiliz. Ez bada abonatu-txartela 3 aldiz aurkeztu, atezainak sarbidea ukatu ahal izango du, abonatua izanda ere.
5. Jarduera bakoitzerako egokia den kirol-arropa erabiltzea, instalazioetatik kanpokoak eta barrukoak bereiziz.
6. Instalazioen ordutegiak errespetatzea, betiere EK-ko langileen jarraibideei kasu eginez.
7. Erabiltzaileen zabarkeriak edo doloak eragindako edozein akatsen konponketa ordaintzea. Elkarte edo klubaren kasuan, kalteen erantzule nagusiak haien ordezkariak izango dira.
8. Tasak edo prezio publikoak ordaintzea eta EKri izandako aldaketak (helbidea, telefonoa, posta elektronikoa, kontu korrontea, etab.) jakinaraztea, horretarako gaitutako edozein bideren bitartez (aurrez aurrekoa, Internet, etab.).
9. Instalazioetako bakoitzaren betebeharrak komunak eta partikularrak betetzea, baita Araudi honetatik eratorritzen diren gainerako arauak ere.

1.3 ERABILTZAILIEN ERREGIMENA

1. Oro har, abonatuak hainbat modutakoak izan daitezke eta Ordenantza Fiskalean arautuko dira.
2. Instalazioetara sartzeko txartela behar da. EK-ko alta izapidetzean edo lehen aldiz ikastaro batean izena ematean, dohainik eskuratuko da txartela. Txartelaren kostua eta doakotasun-salbuespenak Ordenantza Fiskalean jasota daudenak dira.
3. Txartela pertsonala eta besterenezina da, eta titularra ez den norbaitek erabiltzeko erregimen zigortzailea aplikatzea dakar.
4. Abonatuak baja eman nahi izanez gero, horretarako izapidea EK-ko instalazioetako harreraren edo APParen edo webgunearen bidez egin daiteke, betiere urte bakoitzeko abenduaren 20ra arte.

5. Itzulitako ordainagiriak (abonu- edo jarduera-kuotarenak) Ordenantza Fiskalean eta zerga-bilketaren arloko legeria osagarrian ezarritako moduan kobratuko dira.

1.4 KOLEKTIBOAK

1. EKren aurrean, legez osatutako kolektiboak hartuko dira baliozko ordezkari bakartzat.
2. EKren kirol-instalazioak eta instalazio osagarriak (aldagelak, biltegiak, etab.) erabili ahal izango dituzte beren jarduerak zehaztutako ordutegi eta egutegietan garatzeko. Aldez aurretik ezarritako egutegiaren eta ordutegiaren arabera erabiliko dira. Erabili baino 20 minutu lehenago sartu ahal izango da instalazioetara, eta erabiltzen amaitu eta 20 minutura utzi beharko dira, betiere instalazioaren ordutegiaren barruan.
3. Kolektibo interesdunen beharrak jaso ondoren, EK-k instalazioak erabiltzeko ordutegiak banatuko ditu, eta baliozkoak izango dira kirol-denboraldi batean zehar, salbuespenezko egoera batek aldaketarik eskatuko ez balu.
4. Lehia-partidak jokatzeko espazioak eskatzen dituzten kolektibo guztiek ezinbestean aurkeztu behar diote beren lehiaketa-egutegiaren kopia bat EKri.
5. Utzitako instalazioa EKri jakinarazi gabe hiru egunetan erabiltzen ez duten kolektiboek galdu egingo dute hura erabiltzeko eskubidea (ezinbesteko kasuetan izan ezik, eguraldi txarragatik, etab.). Baliogabetze hau Alkatetzaren eskumenekoa da, edo eskuordetutako karguarena. EK-k unean-unean eten ahal izango ditu arestian aipatutako instalazioen erabilerrako lagapen-baldintzak eta gelak, lehentasunezkoztat jotzen dituen beste erabilera batzuetarako, aldez aurretik jakinarazita. Baliogabetze hau Alkatetzaren eskumenekoa da, edo eskuordetutako karguarena.
7. EK-k bilerak egiteko egokitutako espazioak erabili ahal izango dituzte kolektiboek bilerak egiteko, hitzaldietarako edo jardueratarako, aurretik eskatu eta erreserbatuz gero.
8. Lehiaketa ofizialetarako, idatziz adierazi behar dute egin beharreko jardueren egutegia, 15 egun lehenago.
9. Entrenamendu eta lehiaketa ofizialen ordutegiak kirol-instalazioen ordutegi orokorretara egokituko dira (instalazio bakoitzak onartutako egutegian finkatuta daude).
10. Kolektiboek antolatutako kirol-ekitaldien erantzukizun zibila, entrenamendu-saioak barne, kolektiboena izango da. Horretarako, dagokion erantzukizun zibileko poliza kontratatu beharko dute, eta denboraldiaren hasieran EKri polizaren kopia bat eman beharko diote.
11. Lehiaketetan eta ikuskizunetan ikusleek egin dezaketenaren erantzukizuna lehiaketa edo ikuskizuna antolatu duen entitatearena da. Erabilera txarragatik izandako edozein kalte, instalazioak erabiltzeko baimena eskatu duen entitateak edo pertsonak ordaindu beharko du. Lehiaketa ofizialen kasuan, dagokion Federazioari eta kolektiboari emango zaie izandako kalteen berri, eta tokiko taldeak izango du talde aurkariak eragindako kalteen erantzukizun subsidiarioa.

12. Kirol-partidetara sartzeko sarrera kobratzen duten kolektiboek alde zuzenetik eman behar diote horren berri EKri. Sarrerarik badago, salmenta-leihatilak erabili ahal izango dira, baina ekitaldiaren funtzionamendu egokia bermatzeko behar den pertsonala (kobratzeko, kontrola eramateko) taldeen kontura jarriko da.
13. EK-k ez du bere gain hartzen kolektiboetako kirolarientzako botikina jartzea, beraz, taldeek beren botikina izan beharko dute.

2. PREZIO PUBLIKOAK

Tasa eta prezio publikoak Eibarko Udalak eta Udaltzakoak ezarritakoaren arabera izango dira.

1. Ezarritako tasa eta prezioak Eibarko Udalak administratu eta kobratuko ditu. Kuotak abonuei, ikastaroa edo jarduerak hasi aurretik ordainduko dira.
2. Ahal dela, kuotak helbideratze-ordainagiri bidez ordainduko dira. Ordainketa helbideratuta egon ezean, kreditu-txartel bidez edo APPan eta webgunean gaitutako ordainketa pasarelen bidez ordaindu ahal izango da.
3. Adingabeko erabiltzaileen kasuan, ordainketaren ardura gurasoek edo legetutoreek izango dute.
4. Helbideratutako jarduerak automatikoki berriztuko dira irailtik ekainera bitartean. Titularrak baja eman ahal izango du aurreko hilabeteko 20ra arte, webgunearen edo APParen bidez, edo aurrez aurre EK-ko harreretan. Urteko abonuek automatikoki berriztuko dira. Titularrak baja eman ahal izango du urte horretako abenduaren 20ra arte, webgunearen edo APParen bidez, edo aurrez aurre EK-ko harreretan. Sei hilabeterako abonuek ez dira automatikoki berriztuko.

2.2 DIRUA ITZULTZEA

1. Ordainagiriaren itzulketak, bai abonuei mota desberdinei dagozkienak, bai ikastaroari dagozkienak, urtero onesten den araudi berariazkoari eta indarra duen egutegi fiskalari jarraituz egiten dira.
2. Ikastaroak hilabetekoak dira. Ikasturtean zehar, altak eta bajak www.eibarkirola.eus bidez edo gure edozein kirol-instalaziotan bertan bideratu ahal izango dira. Bajak aurreko hilaren 20a baino lehen izapidetu behar dira, eta altak, berriz, aurreko hilaren 23tik aurrera.
3. Salbuespenezko kasuren batean osasun-arrazoi medikoengatik erabiltzaile batek ezin badu egin izena emanda dagoen jarduerak, baja izapidetu ahal izango du jardueran, horretarako ezarritako epe arruntetik kanpo, hau da, hilaren 23tik hilabete horretako jarduerak hasten den lehen egunaren bezperatik aurrera.

2.3 ERRESERBAK

1. Erreserbak egiteko bideak:
 - a) Webgunearen eta EKren APParen bidez, betiere aurretik EK-ko datu-basean alta emanda egonez gero.
 - b) Ek-ko harreran.
2. Erreserbak egiteko gutxienez 16 urte eduki behar dira.
3. Erreserbak gehienez ere 7 egun lehenago egin ahal izango dira.
4. Erreserbak behin betikotzat hartuko dira, eta ez da ez aldaketarik ez diru-itzulketarik onartuko. Erabiltzaileak erreserbaren data aldatu nahi badu, data aldatzeko aukera izango du, betiere gutxienez 24 ordu lehenago abisatzen badu.
5. Instalazioei larriki eragiten dieten eguraldi-gorabeherak direla-eta ezinezkoa bada kirola modu seguruan egitea, erabilera-egun berean, interesdunak egun-aldaketa eskatu ahal izango die harrerako langileei. Mantentze-lanez arduratzen diren langileek ziurtatuko dute instalazioa ez dagoela erabiltzeko moduan, eta, hala bada, beste data batzuk emango dira aukeran.

3. IKASTAROAK ETA KIROL-KANPAINAK

1. EK-k kirolaren praktika hedatzera zuzendutako kirol-ikastaroak eta kanpainak antolatuko ditu urtero; eskaintza horrek herriko biztanleria osoa hartuko du kontuan.
2. Ikastaro eta kanpaina horiek erabiltzaileen gogobetetasuna ahalik eta handiena izatea izango dute helburu nagusizat, baita kirola sustatzea ere.
3. Oro har, ikastaroak urte osoan zehar egingo dira, ahal den neurrian eskaerari eta urtarokotasunari egokituta. Eibar Kirolak erakundeak antolatzen dituen ikastaro, kanpaina eta kirol-jarduerek, Araudi hau ez ezik, urtero onartzen den araudi espezifikoarekin ere bete beharko dute. Araudi horretan ezarriko dira izena emateko baldintzak, funtzionamendua, egutegia eta antolamenduko gainerako alderdiak. Araudi hori osagarria izango da, eta erabiltzaileek nahitaez bete beharko dute.

5. INSTALAZIOETARA SARTZEKO ETA HAIK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK (4. Puntua falta da)

1. Instalazioetan sartzeko, oro har, txartel pertsonala erabiliko da edo sarrera edo sarreraren bonua.
2. Instalazioen gehieneko aforoa indarrean dagoen legeriak zehazten duenaren arabera izango da eta instalazioan bertan egongo da ikusteko moduan.
3. EK-k ez du bere gain hartuko armairu irekietan edo armairu edo aldageletatik kanpo gordetako objektuen zaintza, objektu horien gordailua ez baitago EKren gordailu-kontratuaren bidez babestuta.
4. Pertsonen edo ondasunen egindako edozein kalteren erantzule bakarra kalte hori eragiten duen pertsonarena edo kolektiboarena izango da.
5. EK-k erantzukizun zibileko poliza bat du sinatuta, bere instalazio guztietan kirola

egitearen ondorioz sortutako kalteak estaltzeko, betiere kaltearen eta egoera txarraren arteko kausa-ondorio erlazioa ezartzen bada.

6. Instalazioetan kirola egiteko arropa erabili behar da, hain zuzen ere kirol bakoitzak eskatzen duena.
7. Aldagelak erabiltzeko orduan, 12 urtetik beherako kirolariek osatutako kolektiboak ezingo dira aldageletan sartu, baimendutako pertsona heldu erantzule batekin ez bada (irakasleak, entrenatzaileak, etab.). Erabiltzaileak, gehienez, 20 minutuz egongo dira aldageletan, arropa aldatu eta garbitzeko behar den denboran. Tarte hori 30 minutura luzatu daiteke adingabekoekin doazen laguntzaileen, mendekotasuna duten edo desgaitasuna duten pertsonen kasuan.
8. Erabiltzaileen intimitatea babeste aldera, aldageletan ezin da gailu mugikorrik erabili.
9. Ezin da arroparik, oinetakorik edo objektu pertsonalik utzi aldageletan, bertako errotazio egokia bermatze aldera. Horretarako daude armairuak.
10. Kirola egin bitartean eta instalazioetan egon bitartean soilik erabiliko dira armairuak. Behin kirol-saioa amaituta, armairua libre utzi behar da; bestela, ireki egingo da eta bertako objektuak gordailuan utziko dira, gehienez 7 egunez, horretarako egokitutako toki batean.
11. Ezin da piparik jan, eta elikagaiak instalazioen sarbiderako guneetan eta harmailetan baino ezin dira kontsumitu.
12. Ezin da kristalezko objekturik sartu instalazioen barrualdera.
13. Ezin da instalazioetan erre, apirilaren 7ko, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legearen arabera.
14. Ezin da alkoholik edan, ezta saldu ere, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legeak adierazitako salbuespenetan izan ezik.
15. Ezin da bizikletan, patinetan edo patineteetan ibili instalazioetan, helburu horretarako antolatutako jardueretan izan ezik.
16. Ezin da arropa aldatu aldageletatik kanpo. Arropa talde edo jarduera bakoitzari dagokion aldageletan bakarrik aldatu ahal izango da.
17. Ez dago baimenduta sexu bateko pertsonak beste sexurako bakarrik egokituta dauden espazioetara sartzea, 8 urtetik beherakoen kasuan izan ezik, horiek beste sexuko aldageletara sar baitaitezke, heldu batek lagunduta.
18. Transexualek identifikatzen diren sexuko aldagelak eta komunak erabili ahal izango dituzte.
19. Publizitate-kartelak jartzeko egokituta dauden espazioetan kolektiboek kartelik jarri nahi izanez gero, aurretik EKren baimena lortu beharko dute; espazio horiek proportzionaltasun-irizpideei jarraituta esleituko dira.
20. Oro har, instalazioetan ezin dira pertsonak, instalazioak edo jarduerak filmatu, grabatu edo haien argazkirik atera EKren baimenik gabe. Horrelakorik eginez

gero, arau oso larriei dagokien disziplina-araubidea aplikatuko da. Delitu izan balitezke, agintari eskudunari jakinaraziko litzaioke.

21. Espresuki debekatzen da:

- a. Kirol-instalazio eta -ekitaldi guztietan, indarkeria, diskriminazioa, sexismoa edo mezu matxistak bultzatzen dituzten pankartak, ikurrak edo irudi-testuak sartzea eta erakustea.
- b. Kirol-ikuskizunak egiten diren instalazioetan mota guztietako armak sartzea, salbu eta agintaritza-agenteeek edo bizkartzainek beren eginkizunak betetzeko, eta indarrean dagoen legeriaren arabera eta jardunean badaude; halaber, ezin da jaurtigairik sartu.
- c. Bengalak edo su artifizialak sartzea.

22. Ezin dira instalazioak zikindu (lokaztutako oinetakoak...)

23. Ezin da kirol-arroparik garbitu aldagelen barruan.

24. Ezin da bizarrik egin, depilatu, zorririk kendu, exfoliatu, manikura edo pedikura egin, ezta antzekorik ere.

25. Zakarrontziak erabili behar dira derrigorrez.

26. Jarrera bandalikoek edo araudi hau ez betetzeak zigorra ekar dezakete, banakakoa edo ardura duen kolektiboarena. Horrek guztiak ez du kentzen eragindako kalteen balizko gastuak ordaindu behar izatea.

6. INSTALAZIO JAKIN BATZUK ERABILTZEKO BERARIAZKO ARAUAK

6.1. IGERILEKU ESTALIAK (barruko igerilekuak)

Igeri egitera doazenek erabiliko dute igerileku estalia, kirola egiteko edo denbora pasa; baita igeri egiten ikastera edo duten maila hobetzera doazenek ere. Herriko kirol taldeek edo klubek ere erabiliko dute beren jarduera espezifikoetarako.

Instalazio honen erabiltzaileek eskubidea dute igerilekua indarrean dagoen legeak ezarritako higiene- eta osasun-baldintzetan erabiltzeko. Gainera, eskubidea dute igerilekuko uraren eta airearen kalitateari, neurri zuzentzaileei eta prebentzio-neurriei buruzko informazio nahikoa eta egokia jasotzeko, bai eta intzidentziei eragiten dieten eta erabiltzaileen osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen edo haien interesekoak diren alderdi guztiei buruzko informazioa jasotzeko ere.

EK-k ez du erantzukizunik hartuko bere gain behar bezala igeri egiten ez dakitenek edo kontuz ibiltzen ez direnek istripuren bat izanez gero. Hori dela-eta, debekatuta dago 12 urtetik beherakoak sartzea, heldu batekin ez badoaz, EK-k berak antolatutako programak edo ikastaroetan izan ezik.

EK-k igerilekuaren kaleak nola banatzen diren programatuko du eta banaketa-seinaleak ondo ikusteko lekuan jarriko ditu, betiere han egiten dena errespetatuta: bainu librea, ikastaroak eta taldeek edo klubek jarduerak eta programak.

Erabilera kolektiboko igerilekuen araudiari buruzko Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 18ko 32/2003 Dekretuak ezarritakoa betez, hona hemen igerilekuaren erabilera-araudia:

1. Igerilekua zabalik dagoen bitartean, dagokion titulua duen sorosle bat egongo da, eta hura izango da instalazioaren erabilera egokia eta bertako segurtasuna zainduko duena, beraz, haren jarraibideei kasu egin beharko zaie une oro. Ezin da instalazio honetan sartu soroslerik ez badago.

2. Igeri egiteko eremuetan ezingo dira 138 pertsona baino gehiago ibili batera, eta instalazioan, Ipuruan, gehienez ere 364 pertsona; Orbeakoan 83 lagun dira gehienez ur-eremuan ibil daitezkeenak eta 126 hango instalazioan. Aforoa horiek gaindituz gero, sorosleek edo sarrerako langileek sarbidea mugatu ahal izango dute.

3. Derrigorrezkoa da 12 urtetik beherakoak pertsona heldu batekin sartzea, adingabea gainbegiratu duena (EK-k antolatutako programa edo ikastaroetan izan ezik). Heldu batek, gehienez, 5 adingaberen ardura hartu ahal izango du. Horrez gain, 8 urtetik beherakoak ezingo dira uretan sartu heldu batekin ez bada.

4. Igerilekuan sartu aurretik, ezinbestekoa da dutxa hartzea.

5. Higiene- eta osasungarritasun-arrazoia direla-eta, derrigorrezkoa da uretarako propio egindako bainujantziak edo arropak erabiltzea. Kirol-jantzi horiek, hala nola bainurako maillotak, likrazko kamisetak, bainujantzi integralak edo latex/likrazko bainu-txanoak, uretan erabiltzeko diseinatuta daude, eta bermatu egiten dute higienebaldintzak betetzen direla. Hori dela eta, debeku da igeriketarako berariazkoa ez den bertze edozein janzkirekin bainatzea, ezta barneko arropa erabiltzea ere.

Salbuespen gisa, neoprenozko kirol-jantziak edo likrazko zenbait jantzi preskripzio fakultatiboa, justifikatutako arrazoiak aurretiazko baimena egonez gero soilik erabiliko dira. Burua guztiz soilduta dutenen kasuan, ez da derrigorrezkoa bainu-txanorik erabiltzea.

6. Bainu librerako kale kopurua aldatu egin ahal izango da, EK-k antolatutako jardueren arabera, edota klubek, herriko elkarteek edo ikastetxeek behar izanez gero. Erabilgarritasun hori zerbitzuaren premien arabera aldatu ahal izango da.

7. Zeharo debekatuta dago bainu-gunean kaleko arrokekin edo oinetakoekin ibiltzea. Norbait sartu behar izanez gero, plastikozko oinetako babesak erabili beharko ditu.

8. Instalazioaren erabilera librea egiten duten klubek, ikastetxeek edo erabiltzaileek ezingo dute EK-k antolatutako ikastaro edo kanpainetan begiraleek erabiltzen duten material didaktikoa eskuratu, bai, ordea, beren material propioa edo, halakorik balego, instalazioan libreki erabiltzeko dagoena. Amaitutakoan, materiala hartu den toki berean utzi beharko da. Material osagarria erabiltzean ezingo dira gainerako erabiltzaileak molestatu, bestela, ezingo da erabili.

9. Laguntza-materiala (eskuzorroak, hegalak, etab.) materialarekin igeri egin daitekeen kaleetan baino ezingo da erabili, eta aurretik sorosleari baimena eskatuta. Okupazio altuko uneetan ezingo da horrelako materialik erabili.
10. Ezin da kristalezko betaurrekorik erabili, horrek dakarren arriskua dela eta.
11. Igerian jakin ezean, ezin da ibili hondoa ukitzen ez den aldeetan.
12. Ezin da barruko arroparekin bainatu.
13. Instalazioan guztiz debekatuta dago beirazko objektu zorrotzak sartzea, erretzea, jatea edo alkoholdun edariak kontsumitzea.
14. Guztiz debekatuta dago ezelako hondakinik uztea igerilekuaren inguruan edo igerilekuetako uretan.
15. Guztiz debekatuta dago txiza egitea, txistua botatzea, makilajearekin, kremekin edo edozein motatako aposituekin bainatzea, eta, oro har, uraren kalitatearen kalterako izan daitekeen edozein ekintza egitea.
16. Debekatuta dago urarekin edota elementu pasiboekin zuzeneko edo zeharkako kontaktuaren bidez transmititzen diren gaixotasunak dituzten pertsonak bainu-gunean sartzea.
17. Ezin da gainerako erabiltzaileentzako traba izan daitekeen jolasik edo jarduerarik egin, ezta guneko elkarbizitza kaltetu dezakeenik ere. Bereziki: igerileku inguruan korrika egin, arriskua duten jolasik egin, uretako globoekin jolastu, kortxo-ilarretan jarri edo haiek oratu, banaketa-hormaren azpitik igaro, igerileku-ertzetik, hormatik edo irteerako plataformetatik saltoka ibili, edo igerilekuaren zabalerako norabidean igeri egin.
18. Igeriketa-maila baxua izanez gero edo bainurako arriskutsua izan daitekeen patologiarik izanez gero (epilepsia, bertigoak, diabetesa, arritmiak, etab.), sorosleari jakinarazi beharko zaio.
19. Gomendagarria da, gainerako erabiltzaileak ez oztopatzeko, bainu librerako dauden espazioen banaketari buruzko informazioa jasotzea, egingo den jardueraren, igeri-mailaren edo erabili beharreko materialaren arabera. Igeriketa jarraiturako kaleetan eskuinetik zirkulatuko da, gainerakoan erritmora egokituz, eta igerilekuaren muturretan baino ezingo da gelditu.
20. Gomendagarria da txankletak edo bainurako oinetakoak erabiltzea, baina inondik inora ere ezingo dira uretan sartu.

6.2. KANPOKO IGERILEKUAK

1. Instalazio honetan igerileku estaliko arau berberak aplikatuko dira. Salbuespenak bainu-txanoaren derrigortasuna eta aforoa dira. Aforoari dagokionez, 271 erabiltzaile izango dira ur-eremuetan eta 1.450 instalazioan.
2. EK-k erabakiko du noiz ireki eta itxiko diren kanpoko igerilekuak.
3. Eguraldi txarra egiteak ez dio erabiltzaileari eskubiderik ematen ordaindu duena

EK-K itzul diezaion.

4. Debehatuta dago bainatzea, ekaitz elektrikoa egonez gero.
4. EK-ko abonatu ez direnek ezarritako tasa ordaindu behar dute.
5. Debehatuta dago pilotekin, baloiekin eta gainerako erabiltzaileei traba egin diezaieketen bestelako objektuekin jolastea, bai igerileku inguruan, bai berdeguneetan.
6. Sorosleak dira igerilekuetan agintzen dutenak, beraz, haien gomendioak eta aginduak bete egin behar dira. Sorosleek eskumena dute, beharrezkoa balitz, jendea eremutik kanporatzeko.
7. Ezin da musika-aparaturik erabili, aurikularrekin ez bada.
 8. Elkarbizitzako gune bat denez, hiritar guztiek igerilekuaz gozatzeko eta han ibiltzeko aukera izan dezaten, bertara doazenen jokabidea egokia izan behar da; beraz, debehatuta dago gainerako erabiltzaileentzat gogaikarri izan daitekeen jarduera oro egitea.

6.3 GIDATUTAKO JARDUERAK EGITEKO GELAK

1. Instalazio hauetan sartzeko derrigorrezkoa da kiroleko arropa eta oinetakoak jantzea.
2. Gela hauetan, lehentasun osoa dute EK-k antolatzen dituen ikastaro eta jarduerak, beraz, debehatuta dago bertan sartzea horrelako jarduera programaturen bat dagoen bitartean.
3. Ordu-tarteren batean geletako bat okupatuta ez badago, banakako erabiltzaileek edo taldeek alokatu ahal izango dituzte, dagokion tasa edo prezio publikoa ordainduta.
4. Derrigorrezkoa da norbere eskuoihala erabiltzea eta, izerdi larregi botaz gero, erabilitako aparatuak garbitzea.

6.4. FITNESS- ETA MUSKULAZIO-GELAK

1. Fitness gelan aldeztetik jarduera horretarako izena eman eta onartutako tasa ordaintzen duten erabiltzaileak baino ezin dira sartu.
2. EK-ko abonatuak sarrera libre dute Ipurua kiroldegiko muskulazio-gelan, Unbekoan eta Orbeakoan. Abonatuak ez diren erabiltzaileak ezarritako tasa ordaindu beharko dute instalazio horretan sartzeko.
3. Kiroleko arropa eta oinetakoak eduki behar dira jantzita instalazio honetan sartzeko.
4. 16 urtetik beherakoak ezin dira areto hauetan sartu, ez bada aitak/amak/tutoreak lagunduta; 14 urte edo gehiago izan behar dituzte.
5. Materiala, erabili ondoren, bere lekuan utzi behar da.

6. Derrigorrezkoa da norbere eskuoihala erabiltzea eta, izerdi larregi botaz gero, erabilitako aparatuak garbitzea.

6.5. KIROL PISTAK: PADELA, TENISA, FRONTOIAK ETA SQUASH-A

1. Kapitulu honetan aipatzen diren instalazioetara kiroleko arropa eta oinetakoak jantzita baino ezin da sartu. Beraz, kaleko arroparekin eta oinetakoekin seinaleztatutako lekuetan baino ezin da ibili.
2. Erabiliko diren aldagelak kontroleko langileek esandakoak izango dira; taldeak badira, aldagela kolektiboak erabiliko dituzte eta giltza taldearen ardura duen pertsonari entregatuko zaio.
3. Squash pistetan debekatuta dago zola beltza duten zapatilak erabiltzea.
4. Instalazio hauek erreserbatu egin daitezke Erregelamendu honen araudiaren arabera. Kirol pistetan eta Frontoietan, ostera, lehentasun osoa izango dute Elkarteen eta Kirol taldeen edo klubuen jarduerak.

6.6. ROKODROMOA ETA BULDERRA

1. Instalazio hauek kirol-eskaladarako eta blokeko eskaladarako (bouldering-a) baino ezin dira erabili. Ezin da bestelako jarduerarik egin.
2. Instalazioak erabiltzen dituzten erabiltzaile guztiek aurretik formazioa izan behar dute, eta, hala ez balitz, teknikariren baten zuzendaritzapean egon behar dira.
3. Adingabeok ezin dituzte instalazioak erabili, ez bada ardura hartzen duen aita/ama/ edo tutore baten zaintzapean.
4. Abonatu ez direnek dagokion tasa ordaindu beharko dute instalazioak erabiltzeko.
5. Instalazio hauek ezin dira banaka erabili; gutxienez, pertsona bi behar dira bertan aritzeko.
6. Bulderra ezin da erabili koltxonetak guztiz zabalik egon ezean. Jarduera amaitzean, koltxonetak eta sortutako hondakinak erabiltzaileek jaso behar dituzte ezinbestean.
7. Espazio hauek erabiltzeko derrigorrezkoa da oinetako espezifikokoak erabiltzea (katu-oinak edo eskalatzeko oinetakoak).
8. Debekatuta dago koltxonetetan kaleko oinetakoekin ibiltzea edo jolastea.
9. Guztiz debekatuta dago egituren goiko aldera igotzea.
10. Ezin da oralekurik gehitu edo lekuz aldatu.
11. Instalazio hauek eskoletako umeei erabiltzen dituztenean, ikastetxeko pertsonak lagunduta joango dira; eta umeei doazen pertsonak kirol hauei buruzko ezagutza edukiko dute. Umeen ardura eta erantzukizun osoa pertsona horiena izango da.

12. Erabilera txarrarengatik istripuren bat gertatuz gero, EK-k ez du bere gain hartuko inongo erantzukizunik.

6.7. SAUNAK

1. Sauna-zerbitzua, 16 urtetik gorako erabiltzaileentzat da; baita medikuaren gomendioz sauna erabili behar duten adingabekoentzat ere.
2. Ordutegi mugatua duenez, ordu-txandak ezar daitezke.
3. Saunan sartu baino lehen derrigorrezkoa da dutxatzea, eta, barruan jartzerakoan edo etzaterakoan, eskuoihalen bat erabiltzea. Debekatua dago saunan oinetakorekin sartzea.
4. Gorputzaren higie-nearekin erabat lotua dagoen zerbitzua denez, garbitasuna zaintzeko hartu behar diren neurri guztiak hartzea gomendatzen da.
5. Saunan sartzeko, alde z aurretik, atezaintzan ordaindu behar da ezarritako tasa.
6. Zeharo debekatua dago tinduak, aurpegi-maskarak, olioak eta sauna erabiltzeko orduan garbitasunari kalte egin diezaioketen bestelako produktuak erabiltzea.

6.8. ATLETISMOKO PISTA

1. Atletismo-pistan sartzeko derrigorrezkoa da kiroleko arropak eta oinetakoak erabiltzea. Espreski debekatuta dago futboleko eta errugbirako botak erabiltzea.
2. Pistetan ezingo da pisuekin lanik egin, ezta baloirik erabili ere; atletismoarekin zerikusia duten lanak soilik egin ahal izango dira (betiere berdegunean).
3. Instalazio honetan, Kirolguneko gainerako instalazio guztietan bezala, ezingo da instalazioari kalte egin diezaioketen janaririk jan (pipak, fruitu lehorrak, gozokiak...).
4. Entrenamenduetarako eta lasterketa-lanerako, perimetroko edo inguruko pista berdea erabiliko da, dituen ezaugarri teknikoengatik horixe baita esandako erabilera horietarako pistarik egokiena. Pista horrek 470 metroko luzera du.
5. Ezin dira erabili 1, 2, 3 eta 4 kaleak. 5, 6, 7, eta 8 kaleak abiadura-entrenamenduetarako, eta iraupen-erdiko eta iraupeneko entrenamenduetarako daude gordeta.
6. Lasterketaren noranzkoa erlojuko orratzaren kontrakoa izango da, beste pertsona batzuek egiten duten lana errazteko.
7. Entrenamenduetarako materiala erabiltzen duten taldeek edo klubek, entrenamendua amaitu bezain laster, materiala dagokion biltegietan utzi beharko dute.
8. EK-k jaurtiketa luzeen (xabalina, pisua, diskoa eta mailua) entrenamenduak arautuko ditu, erabiltzaile guztiei eta bertako beharginei begira segurtasuna oso ondo zaindu behar dela kontuan hartuta.

9. Atletismo edo errugbi lehiaketa egunetan, EK-k instalazio honen erabilera murriztu dezake, aurretik abisua emanda.

6.9. BELAR ARTIFIZIALEKO FUTBOL-ZELAIAK

1. Zelai hauetan erabiliko diren oinetakoek gomazko zorua eta takoak eduki behar dituzte, ahal dela multitakoak, eta orpoan, gutxienez, lau tako. Arau hori beste klub edo elkarte batzuetako taldeei jakinaraziko zaie partida ofizialetarako.
2. Ateak ezingo dira lurretik arrastaka eraman, futbol 7 txapelketarako jarri edo kendu nahi direnean.
3. Zelaian zeharo debekatuta dago erretzea edo hura zikindu edo kaltetuko luketen janariak jatea (pipak, fruitu lehorrak...).
4. Zelai hauek erabili nahi dituzten erabiltzaileek dagokion tasa ordaindu behar dute.
5. Okerrik edo kalterik ikusiz gero, atezaintzan jakinaraziko da.

6.10. TENIS-PISTAK

1. Pista hauek, EK-k antolatzen dituen ikastaro, kanpaina eta txapelketetan erabiliko dira. Baita edozein erabiltzailek erabili nahi dituen ere.
2. Instalazio hauek erabili aurretik tasa ordaindu behar da Unbe Kirolgunearen atezaintzan.
3. Erabiltzaileek atezaintzan jasoko dute pistako atearen giltza, eta amaitu ondoren, han utzi beharko dute berriro.
4. Instalazio hauen erreserbak erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera egingo dira.
5. Jarduera honetan derrigorrezkoa da kiroleko arropa eta oinetakoak erabiltzea.
6. Pista honetan ezingo da beste ezer egin EKren alde aurretiko baimenik gabe.

7. ORBEA SPA ERABILTZEKO ARAUAK

1. Derrigorrezkoa da bainujantzia eta txankletak erabiltzea.
2. Nahitaezkoa da eskuoihala sauna sikan eta ohe termikoetan.
3. Atsedentzeko bat denez, nahitaezkoa da isilik egotea.
4. Debeekatuta dago mugikorrak, argazki-kamerak eta bideo-kamerak erabiltzea.
5. Ezin da jatekorik edo edari alkoholduarik sartu.
6. Zirkuituaren iraupena ordu eta erdi ingurukoa izango da.

7. Spa-ren bezeroen esku jarritako aldagelak eta leihatilak erabili behar dira.
8. Ez zaio sartzten utziko alkoholaren edo sustantzia toxikoen eraginpean dagoenari.
9. Kontu handiz ibili behar da ur-eremutik eta dutxetatik irteterakoan eta sartzetakoan, lurra bustita egoten delako. Guztiz debekatuta dago korrika egitea.
10. 16 urtetik beherakoei ez zaie sartzten utziko, euren ardura osoa hartuko duen nagusi batekin lagunduta ez bada.
11. Uretan sartu baino lehen derrigorrezkoa da dutxatzea.
12. Bainua hartzen den lekuetan ezin dira sartu gaixotasun kutsakorren bat duten pertsonak, eta bereziki, azaleko gaixoak dauzkatenak.
13. Bihotzeko gaixotasunen bat, diabetesa, arnasa-arazoak edo tentsio altua duten pertsona guztiek, pertsona nagusiek eta haurdun dauden emakumeek beren medikuarekin hitz egin eta instalazioaren sarreran dagoen sparen arduradunari ohartarazi behar diote.
14. Debekatuta dago instalazioetara animaliak sartzea.
15. Debekatuta dago instalazio barruan hondakinak edo zaborrak uztea; horretarako jarritako paperontziak edo ontziak erabili behar dira.
16. Debekatuta dago, bainura sartu aurretik eta barruan, gorputzeko kremak, aurpegikoak, aurpegi- edo ile-maskarak eta xanpuak sartzea eta erabiltzea.
17. Debekatuta dago sauna barruan depilatzea eta bizarra kentzea.
18. Debekatuta dago saunara erlojuarekin, eskumuturrekoekin, kateekin, eraztunekin... eta antzerako objektuekin sartzea, azala erre dezakete-eta.
19. Debekatuta dago sauna barruan depilatzea eta bizarra kentzea.
20. Debekatuta dago saunara erlojuarekin, eskumuturrekoekin, kateekin, eraztunekin...eta antzerako objektuekin sartzea.
21. Sparen aforoa 31 pertsonakoa da.
22. Spa-ko emakumeen aldagelaren aforoa 27 pertsonakoa da.
23. Spa-ko gizonezkoen aldagelaren aforoa 25 pertsonakoa da.
24. Ezinbestekoa da portaera zuzena izatea. Debekatuta dago musika-aparatuak erabiltzea.
25. 8 urtetik beherakoak ezin dira sartu.
26. SPA Orbeak ez du bere gain hartzen arauak ez betetzeak edo instalazioak eta zerbitzua behar bezala ez erabiltzeak eragin ditzakeen gorabeheren erantzukizunik.

**ALDAGELAK, ARMAIRUAK ETA MATERIALA GORDETZeko ORGATXOAK
ERABILTZEKO ARAUAK**

1. Aldagelen, armairuen eta orgatxoen erabilera lotuta dago kirol-jarduera jakin batekin, beraz, kirol-jardueretarako osagarri gisa erabiltzen dira.
2. EK-k ez du bere gain hartuko guneha hauek uzten diren objektuen edo diruaren ardura, eta instalazioetara balio handiko objekturik ez eramatea gomendatzen du. Bestela, segurtasun-armairuak erabiltzea gomendatzen da.
2. Aldagelak arropa aldatzeko, dutxatzeko eta garbitzeko erabiliko dira kirol-jardueraren ondoren; ezin da bizarra egin, depilatu, atzazkalak moztu eta antzerakorik egin. Aldagelen barruan debekatuta dago jatea.
3. Kirol-espazioak itxi ondoren, erabiltzaileak 25 minutuz egon daitezke gehienez aldageletan.
4. 8 urtetik gorako umeak sexuaren arabera dagokien aldagelan aldatuko dira.
5. Aldagelak adingabekoek edo autonomiarik ez duten pertsonak erabiliz gero, heldu bat egongo da beti haien ardura izango duena.
6. Dutxetara oinetakorik gabe joan behar da edo dutxatzeko oinetako espezifikoak jantzita.
7. Ura arduraz erabili behar da, eta denbora murriztu jendea zain egonez gero.
8. Ahal den guztietan, dutxen gunearen barruan lehortu behar da.
9. Armairuetan erabiltzaileen jantziak, oinetakoak eta objektu pertsonalak bakarrik gordeko dira.
10. Aldageletan eta armairuetan utzitako objektuak, baita kirol-instalazioetan topatutako galdutakoak ere, horretarako egokitutako espazio batean gordeko dira, gehienez, 7 egunetan.
12. Objektuak armairuetan eta gurditxoetan uztea ez dago inolako gordailu-kontraturekin lotuta, hortaz, kirol-instalazioaren titularrak ez du haien zaintzaren ardura hartuko.
13. Erabiltzaileen ardura da erabiltzen ari diren armairuaren giltza zaintzea; giltza galdu edo lapurtuz gero, horrelako kasuetarako ezarritako prezioa ordainduko du.

7. ZEHATZEKO ARAUBIDEA

1. EK-ko instalazioen erabilera-baldintzak ez betetzeak zehapenak jartzea ekar dezake, araudi honetan aurreikusitakoaren arabera. Nolanahi ere, zehapena EK-k hartuko duen azken neurria izango da, ulertzen baita araudiaren helburua kirol-praktika ezartzea eta garatzea dela.
2. Instalazioko langileek ohartarazteko ahalmena dute, baita behar bezalako jarrera ez duten erabiltzaileak instalazioetatik kanpo botatzekoa ere. Ondoren, gertatutakoaren berri emango diote EKren zuzendaritzari.
3. EKren instalazioak, ekipamenduak eta materialak erabiltzean ustekabean gerta daitezkeen kalte pertsonalak ezin izango zaizkio EKri edo Udalari egotzi, ezta

haien ordainketa eskatu ere, salbu eta horien ardura duten langileen errua edo zabarkeria badago, edo instalazioen edo materialaren egoera txarraren kausazko lotura badakarte.

4. Zehapenak jartzea bateragarria da EK-ko instalazioetan eragindako kalteengatik kalte-ordainak eskatzearekin.
5. Arau-haustek mailakatzeko orduan, behin eta berriro gertatu izana, nahita egin izana eta kalteen intentsitatea hartuko dira kontuan.
6. Alkatetzak edo hark eskuordetutakoak izango du arau-hauste larriengatik jarri beharreko zehapenen eskumena.
7. Alkatetzak, edo hark eskuordetzen duen karguak, izango du arau-hauste larriengatik jarri beharreko zehapenen eskumena. Espedienteak izapidetzeko orduan, administrazio publikoen zehatzeko ahalmena arautzen duen araudian xedatutakoa bete beharko da.
8. Hala ere, Alkatetzak, edo hark eskuordetzen duen karguak, kautelaz erabaki ahal izango du ustez arau-haustea egiten duen pertsona kanporatzea, zerbitzuaren normaltasuna kaltetu daitekeen kasuetan.

1.1. ARAU-HAUSTEEN MAILAKATZEA

Falta oso larriak hauek dira:

- EKren edo beste erabiltzaile baten jabetza-ondasunak lapurtzea.
- Lokaletan, instalazioetan edo materialetan, asmo txarrez edo utzikieriaz, kalte larriren bat egitea (konponketak 600 eurotik gorako kostua dakarrenean).
- Beste erabiltzaileekiko edo EK-ko langileekiko begirunerik eza, modu larrian.
- Kirol-instalazioen erabiltzaileen aurkako sexu-indarkeria edo sexuan oinarritutako indarkeria erabiltzea.
- Pertsonen ohoreari erasotzea, mehatxatzea, eskandaluak eragitea edo eraso egitea.
- Baimenik gabe grabatzea edo argazkiak ateratzea.
- 3 arau-hauste larri egitea.

Falta larriak hauek dira:

- Kirol-instalazioetan edo horien sarbideetan desordena publikoak eragitea, jokabidea oso larritzat jotzeko adinakoa ez denean.
- Lokaletan, instalazioetan edo materialetan, asmo txarrez edo utzikieriaz, kalte larriren bat egitea (konponketak 400 eurotik gorako kostua dakarrenean).

- Beste erabiltzaileekiko edo EK-ko langileekiko begirunerik ez izatea, modu larrian, eta irainak edo erabilera eta ohituren aurkakoak diren portaerak izatea.
- Instalazioetan iruzur eginez sartzea.
- 3 arau-hauste arin egitea.

Falta arinak hauek dira:

- Lokaletan, instalazioetan edo materialetan, asmo txarrez edo utzikieriaz, kalte larriren bat eragitea (konponketak 240 eurotik gorako kostua dakarrenean).
- EK-ko beharginek emandako aginduei jaramonik ez egitea edo gainerako erabiltzaileekin nolabaiteko gizagabekieriaz jokatzeta.

1.2. ZEHAPENEN SAILKAPENA

Arau-haustek honela sailkatuko dira:

- Arau-hauste oso larriak eginez gero, erabiltzaile-izaera galduko da eta debekatuta egongo da EKren edozein instalazio erabiltzea (6 hilabete-behin betiko).
- Arau-hauste larriak eginez gero, erabiltzaile-izaera galduko da eta debekatuta egongo da EKren edozein instalazio erabiltzea (1-6 hilabete).
- Arau-hauste arinak eginez gero, debekatuta egongo da EKren instalazioak erabiltzea (asko jota hilabetez).

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

BAKARRA: Indargabetuta geratzen da Eibarko Udal Kirol Patronatuak kudeatu eta administratutako udal-kirol instalazioak erabiltzeko araudia, zeina behin betiko onartu baitzen Eibarko Udalaren Osoko Bilkurak 2012ko azaroaren 16an egindako ohiko bilkuran hartutako eta 2012ko azaroaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako erabakiaren bidez.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENA: Ordenantza honetan jasota ez dauden kasuak administrazioak interpretatu eta ebatziko ditu, hasiera batean, kirol-arloko araudi espezifikoaren, toki-araubidearen araudiaren eta aplikatu beharreko gainerako araudiaren arabera.

BIGARRENA. Ordenantza hau guztiz eskuragarria izango da herritar guztientzat.

HIRUGARRENA. Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hamabost egunera sartuko da indarrean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 eta 70.2 artikuluen arabera, eta indarrean jarraituko du berariaz aldatu edo indargabetu arte.